

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure inguruko elkarteak garrantzitsuak izango dira gure proiektuan, beraiei esker gure produktua aurrera eramanez al izango dugulako. Horrez gain gure artean, lankideen artean, itunak egin beharko ditugu; izan ere, gure arteko harremanak eta komunikazioa txarra baldin bada, asko kostatuko zaigu produktua aurrera eramatea.



Webgune bat sortzea erabaki dugu, honen bidez herritarrek gure proiektuari buruz informazioa eskuratzea eta hau zabaltzea lortuko dugu. Bertan, gure produktuaren helburua eta ezaugarriak azalduko ditugu. Webgune bat sortzea ez da inolako arazoa edo kostua guretzat, gure taldekide baten arreta informatika ikasi zuen eta prest dago guri mesede hori egitea, beraz ez gara kezkatu behar informatiko bat bilatzeaz.

Hala ere, lokal bat beharko dugu, taldekideak betan bilerak izateko. Horretarako, gure herriko Urretxu-Zumarragako, Uggasa enpresarekin jarriko gara harremanetan. Gure ustez aukera ona da, gehien bat prezio aldetik merkea delako. Beraz lehen bi urteetan Uggasak utziko digu lokala. 30€ ordaindu beharko ditugu (argindarra, ura, alkilerria eta wifia barne)



Horrez gain, lokal bat alokatuko dugu, Donostian. Bertan haurren karroak aurretik erosita dituzten gurasoei eta gure produktua bertan jarri nahi dutenei instalatzeko erabiliko dugu.

Gure produktua patentatu egingo dugu eta egile-eskubideak edukiko ditugu, bestela, edozein enpresak gure ideia kopia ahal izango du eta guri irabaziak lapurtu. OEPMri patente eskaera eginez lortuko dugu produktuaren babesa.



**Oficina Española
de Patentes y Marcas**

Jaioberrien karroetan dagoen pantailari eta termometroari dagokionez, ez dugu gehiegi kezkatu behar, gure taldekideetako batek ingeniari teknologikoa ikasi du eta besteak intelijentzia artifiziaia. Argi dago bi pertsonekin bakarrik denbora asko beharko genukeela, beraz hauen unibertsitateko kideak prest daude proiektuan lan egiteko eta hauekin akordio batera iritsi gara.

Enpresa ere aseguratu egin beharko genuke, ezbeharren bat gertatuko balitz, aseguraturuta egon dadin. "Zurich" aseguru enpresarekin akordio batera iritsi gara eta hauekin aseguraturuko dugu gure enpresa.



Nahiz eta guk geuk dirua jarri gure enpresarekin aurrera egiteko, mailegu bat eskatu beharko dugu, zenbait bankuetan informazioa eskuratu ondoren, eskaintza onena honako hau iruditu zaigu: 3500€ eta ondoren %3 interesak ordaindu beharko ditugu. BBVAn eskatuko dugu mailegu hori, hau izan baita interes baxuenak eta eskaintza interesgarriena egin diguten bankua.

Gure herriko, Urretxu, Udaletxeak ere hasieran diru-laguntzak emango dizkigu, behar ditugun erosketak egiteko, bestela diru asko galduko genukeelako.

Gure produktuaren publizitatea egitea ere garrantzitsua da, horregatik kontaktuan ipiniko gara herriko "kakainzona" irratiarekin, herriko eta inguruko pertsonen gure proiektu berria ezagutzeko, eta eitben iragarki labur bat ipiniko dugu. Gainera sare sozialetan ere emango dugu gure produktuaren berri Facebook, Instagram, twitter...